



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bermeoko Udala

**Laburpena, Tokiko Gobernu Batzarrean, 2024ko uztailaren 30ko 3 zenbakiko Ebazpenarena, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen deialdia BDNS (Identif.): 779500.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/779500>)

#### **Lehenengoa. — Onuradunak eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak**

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

#### **Bigarrena. — Oinarri arautzaileak**

Deialdi hau Bermeoko Udalaren 2024ko aurrekontuetan jasota dago, 2023ko maiatzaren 1ko osoko bilkuran onartutako 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Bermeoko Udalaren webgunetik jaitsi ahal izango dira:

— <http://www.bermeo.eus/1304.html>

#### **Hirugarrena. — Zenbatekoa**

- Zenbatekoa Guztira: 1.000 euro.
- Aurrekontu-partida: 01400-33540-4800102.

#### **Laugarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

- Eskariak aurkezteko epea, hilabetekoa izango da, hain zuzen, urrian.
- Justifikazioak: Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren bitartez. Bermeon, 2024ko abuztuaren 7an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly